268.qxp_55 23/2/25 22:31 Página 1

danbolin 25

2025 otsaila
268 zk.

Gaizka Kortadi eta
Mari Artano
Estatu Batuetan
bizitzen
euren familiak hartuta

Iraoberri pottokak
675 965 116 iraopottoka@gmail.com

Botika - Laborategia ZURUTUZA
Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

MGS Mutua General de Seguros
Mila Aranguren
Tel.: 614 196 483
milagrosarangurenlarranaga@mgs.es

txoko taberna
erdikalea 3
tel. 943 147 196

EkainBerri kafetegia
Ordutegia
Aste barruan 06:30/13:30 16:30/20:30
Asteburutan 06:30/14:30 Arratsaldez itxita
By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA

Olier gi
943 147 657

Gestoria Zubia
Mª Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

Zestoa AUTOESKOLA
Gesalaga 1
20740 Zestoa Gipuzkoa
Tel. 943 148 524
zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44
merendero BERDOETXE Iraeta- Zestoa (Gipuzkoa)
merenderobekoetxe@gmail.com
URTARRILA
OTSAILA
MARTXOA
Egun osoan irekita | Mus txapelketa 22:00etan | Irekita 18:00etatik aurrera | Itxita

UZTAPIDE TABERNA
Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

ASESORIA ARIN
ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK
Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com

IRAETA JATETXEA
Olaizola eta Uria kalea – Iraeta
943 147 067

CARAVAN PARK ZESTOA TEL. 14 76 79
GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK
telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net

Gestoria Zubia
Mª Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088
kutxabank

Oiranzu taberna

kutixi eta pentsuak
LAIAK ZESTOA
www.laiakdenda.com
tfnoa: 943148134
laiak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.

943 897 276
Goxuri

Eizagirre Okindegia
Tel: 943 090341

fati taberna
Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!
bakun
Narkis Balentziaga, 2
20749 Arroa (Gipuzkoa)
T +34 943 148 306
F +34 943 897 380
bakun@bakun.eus
www.bakun.eus

UROLA ITURGINTZA
665 49 07 73

KOIOTE
foru plaza, 4
tel. 943 147 095

Aranburu
Landetxea eta jatetxea
943 148 005

268.qxp_55 23/2/25 22:31 Página 3

Gero gerokoak

Erronka: egoera zail batean aurrera egiteko gaitasuna. Horixe da esku artean duzun zenbakian jasotako hiru artikuluak lotzen dituen haria. Neurri batean edo bestean, denok ezartzen dizkiogu erronkak geure buruari; denetarikoak izaten dira: handiak, txikiak ertainak… Zenbaki honetako protagonistenak erronka handiak direla esango nuke.

Gaizka Kortadi eta Miren Moyano irakasleak dira eta Espainiako Hezkuntza Ministerioaren programa batean izena ematea erabaki zuten Ameriketako Estatu Batuetara lanera joateko. Gehiegi pentsatu gabe hartutako erabakia izan zen, baina ilusioz hartu dute erronka. Uztail bukaeran iritsi ziren Ipar Karolina ekialdeko Buxton herrira, euren alaba Lilirekin batera. Mari Artanok eta Iñigo Aizpuruak ere Gaizka eta Mirenen bide bera jarraitu dute. Beraien bidez izan zuten programaren berri, eta Iñigo irakaslea denez, izena eman zuten. Handik hilabete gutxira, abuztuaren 1ean, Massachusettseko Framingham hirian lur hartu zuten, Kattalin, Martin eta Karen seme-alabekin batera. Familian abentura bikain bat bizitzeko erronka jarri zioten bi bikoteek beren buruei eta jada, lehen hilabeteak pasa dituzte lur haietan. Nahiz eta herriaren, familiaren eta lagunen falta izan, momentuz, behintzat, esperientzia ederrean murgilduta daudela azaldu digute.

Ameriketako Estatu Batuetaraino joan gara, baina itzul gaitezen herrira, hemen ere baditugu eta erronkak. Horien artean da Udalak Zestoako nerabeekin martxan jarri duen proiektua. Jakinekoa da nerabezaroan bizitzako aldaketa esanguratsuenak gertatzen direla eta aldi horretan lehen erronkei aurre egitea tokatzen dela. Zestoarrok nerabezarora iristean bizi dugun aldaketa nabarmenenetako bat eskolaz eta herriz aldatzea da, eta horrek harremantzeko era, aisialdiaren berrantolatzea… dakartza. Hori horrela, garai horretan sortzen diren hutsuneei erantzuteko asmoz jarri du martxan udalak 12 eta 16 urte bitarteko gazteek herrian duten parte-hartzea eta beraien arteko harremanak sustatzea helburu duen proiektua. Beti entzun izan dugu adin tarte horretako gazteentzat ez dagoela ezer herrian, ez leku fisikorik ezta haiei zuzendutako ekintzarik ere. Egitasmo honi esker, nerabeen behar eta nahiak ezagutu eta haien autonomia sustatu nahi da, komunitatean paper aktiboa izan dezaten. Ez dute erronka makala!

Inaxio Sorazuk garbi du bere hurrengo erronka: Brazilian jiu-jiutsu arte martzialeko Espainiako Txapelketa jokatuko du martxoaren 1ean. Unibertsitatean ikasten ari zela hasi zen kirol hori praktikatzen, eta bere denboraren zati handi bat eskaintzen dio egun. Oso kirol teknikoa dela azaldu du; forma fisiko ona izanda ere, teknika egokirik gabe indarrak ezertarako ez omen du balio.

Lerro hauetan ondorengo orrietan irakurriko duzunaren sarreratxoa egiten saiatu naiz. Horixe izango da, beraz, zure hurrengo erronka: eseri lasai eta irakurri hainbeste mimorekin egindako zenbakia. Gero gerokoak…

itsaso waliño erraşti

Danbolinek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

Argitaratzailea: Danbolin Zulo elkartea. Kultur Etxea. Axun Arrazola plaza 1, 20740 Zestoa (Gipuzkoa)
722 609 265 info@danbolin.eus

Danbolin: Naiara Exposito, Amaiur Aristi, Urko Canseco, Sara Matsutani, Peru Gartzia, Jone Bergara, Itsaso Waliño, Ohiana Calparsoro eta Oihane Goikoetxea

Kolaborazioak/zuzenbaile baldea: Nagore Celleria, Jon Arcano, Fernando Arzallus, Onintza Irureta, Mireia Orbegozo, Eider Arrizabalaga, Maider Arregi, Nerea Odriozola, Itsaso Zubiria eta Mikel Irure

Diseinua eta maketazioa: Eneko Aristi

Inprimatzegia: Gertu (Oñati).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429

Diruz lagundutakoa

Zestoako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Proiektu laguntzaileak

frigolan

RENOVALAN

UGARTE Burdindegia S.L.

Haitzean jaioak, haitzera nahi

Kasualitatez, Aitana, duela pare bat egun aurkitu nuen bost urtetxo nitueneko bideo batekin. Salouko hotel bateko umeen dantza-joko batean gabiltza Udane eta biok pausorik asmatu ezinik, hor saltsan, eta halako batean hanka-sartze batengatik kanporatzen naute.

Animatzaileak, neska polit alemaniar batek, gaztelera eskasarekin ahal duen moduan ¿Dónde eres? galdetzen dit. Txapeikoa naizela erantzuten diot nik, eta hori Espainian dagoen galdetzean, sorbaldak altxatzen ditut nik, besterik ez dakidala adieraziz.

Kanpoan bizi naizenetik zerbait ikasi badut, denok noraezean gabiltzala da. Horregatik ikusten dut ezinbestekoa nondik gatozen ondo jakitea, errealitatean inork ez baitakigu norantz goazen. Bartzelonan oso gustura nagoen arren, normala den bezala, herrimina izaten dut maiz. Ahal den moduan, etxetik gertuago sentitzeko lehen egiten ez nituen gauzak egiten ikusten dut neure burua. Pisukideei burua lehertuko diet sukaldatzeko Laja eta Landakanda jartzeari ez badiot uzten; nahiz eta gero ederki gustatzen zaizkien nik prestatutako gildak igandeko bermutarekin edo pikillo piper eta atun entsalada.

Askotan lagunei eta lankideei amona Agustina eta Txapeiko kontuez hitz eginez sentitzen naiz etxetik hurbilago. Amona ondo polita eta apaina dudala esaten didate guztiek, bai sukaldean arrain zopa prestatzen ala baratzean sardearekin belarra biltzen ari denean. Celebrity-a da jada nire zirkulu gertukoenetan. Lanean laster jarriko gintuzkeela diozu zuk, Aitana, baina hark esanda, nahiago gaitu gonbidatu biok Txapeiko etxe aurrean hamaiketako eder bat egitera!

Hau guztia esanda, ez dakit oraindik Txapeira itzuliko naizen bizitzera. Oraingoz, familia osasuntsu dudan bitartean, urtean lauzpabost aldiz eginiko bisitek nahiko betetzen dute nire kupoa. Argi daukat, behintzat, Txapeiko baratzeko babarrunak bezain txapeitarra naizela.

enbidoa

Babarrunen harira, makina bat aldiz ikusi dut eguzki azpian jo eta ke nire amabitxia baratzean lanean. Nire enbidoa, izeba Elena Goikotxearentzat: Nolakoa izan zen herritik baserrirako bizitza aldaketa? Eta, zure ustez, zer paper du baserrian etxetik kanpo lan egiten duen gaur egungo emakumeak?

markel cabanillas

pintada. Arteagako sarrera eskasa.

Egia da Arteaga Auzunearen sarrera-irteerak inoiz ez direla izan autoentzat erosoenak, baina, gaurdaino, ondotxo moldatu izan gara auzora sartzeko. Errepidean egin berri diren lanek, ordea, panorama okertu dutela esango nuke.

Batetik, goiko sarrerako malda bikoiztu dute, lehenagotik zegoena baino gehiago okertu, espaloia jarri eta errepidea estutu dute. Ondorioz, sarrerako malda deserosoa izateaz gain, arazoak ematen ditu; besteak beste, autoa errazago kalatzen delako, behea jotzen duelako... Bestetik, beheko sarrera-irteerako malda ere are handiagoa egin dute. Hortaz, hemen ere, oso-oso motel joan ezean, kotxeak bajua jotzen du.

Aitortzen dut, nire gidatzeko doteak ez direla hoberenak, baina ez da kasualitatea autoarekin bila pasa zaizkidan lagunen ahotik komentario berdinak entzutea: "joe, ze gaizki dagoen sarrera!" ala "bada, hurrengoan abisatu eta motelago sartuko naiz maldan!". Geroztik, ohitura hartu behar izan dut lagunei aurrez abisatzea kontu handiz sartzeko auzoan, bestela, martxa honetan, ez zaizkit gehiago bisitan etorriko! Gauzak diren bezala; errepidea ezagutu ezean, auzora lehenengo aldiz etortzean ez da erraza egoki sartzea.

Eskertzekoa da auzokideengan pentsatuta obrak egin izana, baina, kasu honetan, ez dut uste aziertoa izan denik aldaketok egitea.

larraitz blanco

268.qxp_55 23/2/25 22:31 Página 5

BEHATZ-DANTZA

Punta-puntako gure mugikorretan behatza gora eta behera astinduz gabiltza gelditu gabe. Egunean ordubete, bi, hiru, lau edo zortzi. Etengabe. Pentsa, izen bat ere jarri diote behatz-dantzari, ingelesez, noski: *scroll.* Dagoeneko entzun diot bati baino gehiagori euskarazko moldaketa (moldaketa-edo): *scrolleatu.*

Euskararen arnasguneetan airea kutsatzen ari omen da azken aldian eta ahots garbizale batzuk altxatzen hasiak dira behatz erakuslez azal ilunak seinalatzera. Euskararen erabileraren beheranzko joera ez dugu arrazoi bakarrarekin azaltzerik, seguru, baina dakidana da ni Zestoa baino herri erdaldunago batetik natorrela eta oroitzen dut gu ume ginela lortzen zela inguru erdalduneko haurrak, modu naturalean, euskaraz aritzea eta bizitzea. Esango nuke bazegoela eskolan, familian, komunitate oso baten euskararekiko konpromiso handia. Baina badakit, dena den, ez zegoela gaur egungo pantaila-festarik. Hizkuntza handietan atertzen ez duen edukiak uneoro tabletean, mugikorrean... ez zen horrelakorik. Eta gaur, erraldoien ondoan, erauntsiak aterkirik gabe harrapatu gaitu.

Behin blai eginda, salto egin dugu putzura, buruz, eta nabigatzen pasatzen dugu eguna. *Scrolleatzen.* Ustez kontrolatzen eta aukeratzen ditugun edukiak kontsumitzen, baina kontroletik kanpo. Algoritmoen menpe. *Yonkie.*

Hizkuntzaren erabilera aztertu eta euskarari eusteko indarrak non jarri, mahai gainean ipini beharko ditugu faktore-eragile posible bat baino gehiago; familia ez euskaldunen kopurua eta joera, kasu; eta aztertu beharko da nola lan egin arlo horretan. Baina ausartuko nintzateke esatera gako nagusietako bat pantailetan eta kontsumoan dagoela. Ume eta gaztetxoen hizkuntz ohiturek kezkatzen gaituzte eta bai, jar dezagun fokua berengan, baina ez dezagun tranparik egin eta helduon jarrerei zorrotz erreparatu diezaiegun. Hor ez gara hain eroso sentitzen, ezta? Gure kontsumo-ereduan *scrolleatuta*, pastela agerian geratzen baita: pantailak kontrolik gabe kontsumitzen ditugula eta ez dugula apenas ezer euskaraz ikus-entzuten.

itzaso zubiria

MATHIEU VAN DER POEL

Garai batean katenariari eusten zioten hormigoizko poste haietatik zutik iraun duen bakarren bategatik ez balitz, inor gutxi oroituko litzateke gaurko bide hau, atzora arte, Urolako tren zaharrak egiten zuen bide bera zenik. Hementxe egin dugu topo lagun batek, haren amak eta hirurok, eguerdiko eguzkitan paseoan genbiltzala. Ama gustura dabil alabarekin dabilelako, eta alaba ere bai, jakina, amarekin dabilelako eta ordeka-ordekan dabiltzalako, herriko aldapetan amaren aulkiari bultzaka ibili beharrik gabe.

Gustura dabiltza, baita ere, txukun asfaltatutako bide batean aurrera doazelako elkarrekin hitz-aspertuan, kaleko espaloiak, koskak, gaizki aparkatutako autoak eta gainerako oztopoak nola gainditu pentsatzen burua hausten ibili beharrean. Iritzi berekoak izango dira, seguru asko, ume jaioberria kotxe-kapotan hartuta dabilen bikotea eta patinetan ibiltzen ikasten ari diren neska-mutikoak.

Halako batean, "Aio, ama! Aio, amama!" esanez ondotik pasatu zaigu lagunaren alaba, bizikletaz, ziztu bizian eta apain-apain jantzita, lokatz-bideetan eta putzuetan zikintzeko edo hankaz gora erortzeko beldur handirik gabe. Halaxe joaten omen da azken bolada honetan, Azpeitian ezagutu duen lagunen batekin maite-kontuetan ibiltzera. Ez omen zaio gustatzen maite-ordu horiek autobusaren ordutegietara lotzea, gehienetan motz geratzen zaizkiolako. Jende gehiago ere ibiltzen da bide horretatik, hala nola ondoko herrietara eta poligonoetara lanera edo ikastera joaten diren zenbait. Lasai-lasai ibiltzen omen dira, ordenagailu eramangarria eta bazkaria bizkarrean hartuta, presaka dabiltzan autoen eta kamioien batere beldurrik gabe. Aisialdirako ez ezik, herrien arteko joan-etorriak arintzeko ere balio du, beraz.

Jakina, Azkoititik Azpeitira doan tarteaz nabil hizketan, ezen Zestoakoa ez baita horrelakoa. Zestoakoa askoz hobea da... Mathieu van der Poelek ziklokroseko mundiala prestatzeko, eta Matheiu van der Poeli ez zaio beharrezkoa iruditzen bide hori txukuntzea.

imanol salegi

268.qxp_55 23/2/25 22:31 Página 6

Inaxio Sorazu

INAXIO SORAZU, BRAZILIAN JIU-JITSU ARTE MARTZIALEKO KIROLARIA, URTARRILAREN AMAIERAN EUSKADIKO TXAPELKETA IRABAZI ETA ESPAINIAKO TXAPELKETARAKO SAILKATU DA. ORAIN, ERRONKA HANDIAGO BATI AURRE EGITEKO PRESTATZEN ARI DA, ILUSIOZ ETA DEDIKAZIOZ. BERE PRESTAKUNTZA ETA ESPERIENTZIAZ GEHIAGO JAKITEKO, ELKARRIZKETA EGIN DIOGU, BERE KIROL IBILBIDEAZ, EGUNEROKO ERRONKEZ ETA JIU-JITSUAREN INGURUKO IKUSPEGIAZ HITZ EGITEKO AUKERA EMANEZ. INAXIORENTZAT, EZ DA SOILIK BORROKA-KIROLA; BIZITZAKO BALIOAK LANTZEKO ETA NORK BERE BURUA GAINDITZEKO TRESNA ERE BADA.

Zertan datza Brazilian jiu-jitsua?
Brazilian Jiu-jitsua borroka-kirola da, non helburua aurkaria mendean hartzea den. Teknika jakin batzuez baliaturik etsaia menderatzea eta higitu ezinik edukitzea da jiu-jitsuaren funtsa.

Urtarrilaren amaieran Euskadiko Txapelketan parte hartu zenuen eta Espainiako Txapelketarako sailkatu zara. Nola joan zitzaizun txapelketa?
Euskadiko Txapelketa Grappling modalitatekoa izan zen (jiu-jitsuaren diziplina bat),eta nahiz eta Jiu-Jitsuarekin antzekotasun handiak izan, hemen ez da gerrikorik erabiltzen. Nahiko txapelketa exijentea da Espainia mailan, eta Euskadi mailan jende gutxik hartzen du parte.
Urtarrilaren 25ean izan zen txapelketa, eta nire lagunak animatzera etorri ziren. Aurkari bakarra izan nuen, eta 2 minutu baino gutxiagoan menderatzea lortu nuen. Nahiko lasai atera nintzen borrokara, eta aurkaria, berriz, oso indartsu hasi zen. Hala ere, azkar nekatu zen eta borroka bizkor amaitu zen. Orain, Espainiako Txapelketa prestatzen nabil, martxoaren hasieran izango baita, Albaceten.

Martxoaren 1ean, larunbata, jokatuko dut txapelketako lehenengo norgehiagoka, Grappling modalitatean. Borrokak kimonorik gabe izango dira, eta 15:00etatik 20:00etara bitartean egingo dira. Hurrengo egunean, igandean, Grappling Gi modalitatean lehiatuko naiz, oraingoan kimonoarekin. Borrokak goizeko 09:00etatik 13:00etara izango dira.

Kirol honek zure eguneroko bizitzan nolako eragina du? Nola uztartzen dituzu entrenamenduak eta zure eguneroko beste konpromisoak, lana eta abar?

Kirol honek eragin handia du nire eguneroko bizitzan. Astean zehar denbora asko eskaintzen diot, baina gustura egiten dudan zerbait da. Lana eta entrenamenduak uztartzea zaila izaten da, baina entrenamenduak nire deskonektatzeko uneak izaten dira. Donostian entrenatzen dut astean lau aldiz, nahiz eta batzuetan hiru entrenamendu astean zehar eta bat asteburuan egiten ditudan. Txapelketa bat dudanean, dieta berezi bat jarraitu behar izaten dut pisu zehatz baten barruan egoteko. Hala ere, ez dut txapelketetan etengabe parte hartzen; ez da lehentasuna niretzat, tarteka egiten dudan zerbait da. Gainera, beste kirol batzuk ere gustuko ditut, hala nola mendira joatea edo eskalada, baina txapelketetan nabilenean ezin izaten ditut horiek praktikatu, txapelketan enfokatuta egon behar izaten baitut.

> "Espainiako borrokalari onenen aurka lehiatuko naiz, eta nire helburua ondo prestatuta joatea eta ahal dudan ondoena egitea da"

Zein dira aurten dituzun hurrengo erronkak edo helburuak? Espainiako Txapelketa prestatzeko zer egingo duzu bereziki?

Espainiako txapelketa oso gogorra eta zaila izaten da, Espainiako selekzioarekin ibiltzen den jende askok parte hartzen baitu. Espainiako borrokalari onenen aurka lehiatuko naiz, eta nire helburua ondo prestatuta joatea eta ahal dudan ondoena egitea da.

Argi dut ez dudala nahi galdu pentsatuz gehiago entrenatu izan banu irabazteko aukerak izango nituela. Horregatik, ahalik eta gehien prestatzen saiatuko naiz, ondoren damurik ez izateko.

Nola hasi zinen jiu-jitsu praktikatzen? Nolakoak izan ziren zure lehen pausoak kirol honetan?

Arrasateko Unibertsitatean ikasten hasi nintzenean, futbolean aritzen nintzen, baina hori utzi ondoren, MMA arte martzial mistoa asko ikusten hasi nintzen, eta arte martzial bat probatzeko gogoa piztu zitzaidan. Hasieran, MMAko eskoletara apuntatu nahi nuen, baina lekurik ez zegoenez, Jiu-jitsua probatu nuen, eta berehala gustatu zitzaidan.

Hasieran, zerotik hasten bazara, kirol honen errealitateak hunkitu egiten zaitu, izan ere, 20 kilo gutxiago duen pertsona batek erraz gaindi zaitzake. Oso kirol teknikoa da, eta horregatik, askorentzat frustragarria izan daiteke bera baino askoz argalagoa edo ahulagoa den norbaitek irabaztea. Nahiz eta forma fisiko ona izan, teknika egokirik gabe, indarrak ez du ezertarako balio.

Gerriko zuriarekin hasi zinen; zein mailatan zaude orain? Zein erronka dakartza mailaz igotzeak?

Jiu-jitsuan bost gerriko daude: zuria, urdina, morea, marroia eta beltza. Ni erdikoan nago, morean. Borrokalari bakoitzaren irakaslearen ardura izaten da mailaz igotzea, eta normalean 2 urtean behin izaten da. Maila altuagoa izateak taldean erantzukizun handiagoa izatea dakar, gazteei edo hasi berriei laguntzeko konpromiso handiagoa hartu behar duzu.

Bakarkako kirola izan arren, talde kirola ere bada. Gure taldean giro ona dago, eta beti saiatzen gara elkarri laguntzen. Jiu-jitsua nahiko berria denez, etengabe ikasten eta teknika berriak ezagutzen jarraitzen dugu.

Zer aholku emango zenioke Brazilian jiu-jiitsua praktikatzen hasi nahi duen norbaiti?

Kirol hau probatzea nahi duen norbaiti, hastea eta gutxienez aste batzuk edo hilabete batzuk praktikatzea gomendatuko nioke. Lehenengo klasean seguruaski gaizki moldatuko zara edo galduta sentituko zara. Baina kontzientzia eta etengabeko saioekin, oinarrizko teknika batzuk lortzen dituzunean, orduan ikusten da benetan gustuko duzun kirol hau ala ez.

Gazte asko autoestimua baxuarekin hasten dira, eta hilabete batzuen ondoren, taldean integratzen hasten dira eta asko eboluzionatzen dute. Jiu-jitsua probatzen duten gazteak, batez ere psikologikoki asko indartzen direla nabarmendu nahiko nuke, baina baita fisikoki ere.

Oihane Goikoetxea Larrañaga

irakaslelanetan Estatu

GAIZKA KORTADI
ETA
MIREN MOYANO

"ASKO PENTSATU GABE EMAN GENUEN PROGRAMAN IZENA; FAMILIAN MUNDUA EZAGUTZEKO AUKERA ONA ZELA IRUDITU ZITZAIGUN"

PASA DEN UDAN, MARI ARTANO ETA IÑIGO AIZPURUA EUREN HIRU SEME-ALABEKIN ETA GAIZKA KORTADI ETA MIREN MOYANO EUREN ALABAREKIN AMERIKETAKO ESTATU BATUETARA JOAN ZIREN BIZITZERA. ESPAINIAKO HEZKUNTZA MINISTERIOAREN PROGRAMA BATEN BAITAN IÑIGO ETA MIREN IRAKASLE LANETAN ARI DIRA. DAGOENEKO URTE ERDI BAINO GEHIAGO DARAMATE HAN, BATZUK MASSACHUSETTSEN ETA BESTEAK IPAR KAROLINAN. DANBOLINEKIN ARITU DIRA EUREN BIZIMODU BERRIAREN INGURUAN.

Zergatik zaudete Ameriketako Estatu Batuetan?

Espainiako Hezkuntza Ministerioak urtero ateratzen duen programa baten bidez etorri gara, urtero 600 irakasle inguru etortzen dira lan egitera. Guk Ipar Karolina aukeratu genuen, lehen hezkuntzako pedagogiari zuzendutako irakasleak behar zituztelako, eta horretan Mirenek zerbait badakielako. Kostaldean bizitzea beti gustatu izan zaigu, klima epela, bi urteko haurra... guzti horri begiratuta aukeratu genuen Ipar Karolina. Biok egin genuen eskaera, eta Miren aukeratu zuten. Ni etxeko lanak egiten geratu nintzen hasieran eta orain irakasle lanetan nabil. Haurreskolak oso garestiak dira, guk asteko 200 dolar ordaintzen ditugu.

Non bizi zarete zehazki?

Ipar Karolinaren ekialdeko herri txiki batean. Ozeano atlantikoaren gainean dagoen irla batean, Cape Hatteras du izena; gure herria, berriz, Buxton da, 3.000 biztanle inguru ditu. Oso leku polita da. Zubi luze batek elkartzen du irla kontinentearekin. *Outer Banks* (OBX) izenez da ezagunagoa ingurua. *Outer Banks* Netflixeko seriea bizi garen lekuan grabatua dago. Surfa eta arrantza dira hemen nagusi. Udan oso leku turistikoa da eta neguan, berriz, bertakoek dioten moduan "only the locals remain".

Mareen gorabeherak asko nabaritzen dira kale eta errepideetan; potzu handiak egiten dira, errepidea itxi behar izateraino, eta bide bakar horrek lotzen du gure irla lurrarekin! Hasieran kostatu zitzaigun hori horrela zela onartzea. Urakan eta ekaitz tropikalen garaian berriz (ekainetik azarora arte) gobernuak sms mezuak bidaltzen ditu, eta noiz behinka irla utzi beharra izaten da, horregatik, oinarrizko gauzekin maleta prest izatea aholkatzen da.

Nolakoa da horko bizimodua?

Oso bizimodu lasaia da, natura eta itsasoari lotua. Neguak ez dira oso gogorrak eta hondartza luzeetan paseoak ematea ederra da. Animalia asko ikusten da inguruan: oreinak, koioteak, dortokak, pelikanoak, delfinak... Nahiz eta bertakoek autoa nahiago duten gu gustura ibiltzen gara bizikletaz erosketak egiten edo lanera joaten. Sozializatzeko momentu gutxi aurkitu ditugu oraingoz, saiatu gara afariren bat edo beste egiten ezagututako jendearekin. Horrek ere poz pixka bat eman digu.

Batuetan

Zerk harritu zaituzte gehien horko bizimodutik?

Bost hilabete inguru bakarrik daramatzagu hemen eta ez gaude tesi sakona idazteko, baina ikusi dugu gizarteak ez duela babes nahikorik aspektu batzuetan: lan ordutegi luzeak, osasungintza sistema ankerrak eta jan ohitura eskasak. Ondorioak nahiko nabariak dira kalean; oso jende heldua ikusi dugu lanean.

Alderdi onak ere ekarri ditu horrek, gizarte indibidual izatetik komunitate izaera nola hartu duen ikusi dugu: donazioak, talde lanak, elkar arduratzeak, zahurgarriekiko jarrera...

WhatsApp-a ezagutzen dute baina e-message izeneko APP bat erabiltzen dute, adibidez. Topikoak ere bai: energia kontsumo handiak dute; asko kontsumitzera ohituak daude; aire egokitua udan eta neguan topera izaten da bazter guztietan; argiak edonon eta edonoiz piztuta; edariren bat beti eskuan; asko bidaiatzen dute estatuz estatu; oso jende gutxik edaten du alkoholdun zerbait edo erretzen du kalean, lege zorrotzak dituzte, ezkutuan egiten den zerbait da. Bestalde, oso ekintzaileak dira, beti ari dira negozioez hitz egiten. Supermerkatuak ikusita ere, harritu egin ginen: oro har, barazkien zatia oso txikia da snacks eta azukredun edari edo poltsek betetzen dituzten pasillo mordoekin alderatuz.

Nolako hezkuntza sistemarekin egin duzue topo?

Hezkuntza sistema ezberdina da. Klasean askatasun handia dute eta portaera aldetik zuzentasun apur bat falta zaie. Sariketa sistema erabiltzen dute estimulu gisa. Haurrekin oso permisiboak dira, oso babestuta daude.

Irakasle izatea, ekintza sozial modura ikusten da eta horri errespetu berezia dio jendeak. Adibidez, autoen tailer batera bazoaz, edo erosketak egitera, eta irakaslea zarela ohartzen badira, deskontuak egiten dizkizute.

Bestalde, astero samar simulakroa izaten da eskolan: urakan, sute eta tiroketa saiakeren babeserakoak izaten dira. Beldurraren itzala beti gainean dute. Ondorioz, poliziak, suhiltzaileak eta militarrak kirolari ospetsuenen pare goraipatzen dituzte.

Nolako jendearekin egin duzue topo?

Oso jende ona, zintzoa. Harritzeraino lagun zaitzakeen jende klasea. Gustatzen zaie jakitea nongoak garen, zertara etorri garen... Oso goiztiarrak dira, irakasleen kasuan 07:00etarako ia denak eskolan egoten dira. Orokorrean oso familiarrak dira, aisialdia asteburuetan-eta familia giroan pasatzen dute. Erlijioak ere tarte handia du.

MARI ARTANO ETA IÑIGO AIZPURUA

"FAMILIAKO ABENTURA MODUAN ARI GARA BIZITZEN ESPERIENTZIA ETA POLITA IZATEN ARI DA"

Non zaudete zehazki?

Massachusetts-en gaude, New Englandeko eskualdean. Gure hiriak Framingham du izena eta Bostonetik oso gertu dago. Ekialdeko kostan gaude, amaigabeko baso hostogalkorrean sartuta, lakuz inguratuta. Udazkenean liluratuta egon ginen koloreei begira, herriak eta hiriak basoan integratuta daude eta horrek ematen dio magia. Neguak oso hotzak dira, zeropeko tenperaturak eguna joan eta eguna etorri, elurra, lakuak izoztuta...

Nondik sortu zen ideia familia osoa hartu eta AEBtara joateko?

Ez da erabaki arrazionala izan, gorputzak edo bihotzak agindutako bulkada bat baizik. Atzerrira joateko ideia beti izan dugu buruan, eta familia-abentura moduan planteatu genuen. Gure ilusio eta beldurrekin, baina buelta gehiegi eman gabe. Iazko Gabonetan Gaizka eta Mirenek komentatu ziguten irakasleen deialdia irekita zegoela eta animatuta zeudela; orduan hasi zen bidea. Maiatza hasieran eman ziguten baiezkoa eta abuztuan etorri ginen.

Zenbat denbora igaroko duzue han?

Urte erdia egin dugu eta oraintxe sentitzen dugu egokituta-edo gaudela. Berez ikasturte hau igarotzera bakarrik etorri gara, baina esperientzia positiboa baldin bada, beste ikasturte bat ere pasako dugu. Programa honek bost urtera arte luzatzeko aukera eskaintzen du, beraz, ikusiko dugu nola gauden eta erabakiko dugu zer egin.

Nolakoa da zuen egun bat Framinghamen?

Astegunetan gure egunerokoa lana eta eskola dira. Abendura arte bizikletan joaten ginen eskolara, eskularruak, txapelak, bufandak... jantzi eta aurrera. Inguruak asko laguntzen du, estetikoki ederra daeta: etxetxoak eta basoa. Gure etxetik bi miliatara (3,22km) dago eskola eta gertu dagoenez ez zaigu tokatzen autobusez joatea (filmetako autobus hori tipiko horietakoa), zeropeko tenperaturak dauzkagunetik kotxean joaten gara.

Martin eta Kattalin eskola berera joaten dira, Iñigok beste batean egiten du lan eta Karen momentuz ez da haurreskolara joaten. Liburutegian ekintza pila bat egiten dira Karenen adineko umeentzat eta han ibiltzen gara askotan. Hemen bost urterekin hasten dira eskolan. Nik etxean egiten dut lan masaje eta kontsultekin.

Martin eta Kattalin 09:00etatik 15:30era egoten dira eskolan, eta han doan gosaltzeko eta bazkaltzeko aukera dute, baina etxean gosalduta joan ohi dira eta bazkaria etxetik eramaten dute; hala nahi dutelako. Gainera, jangelako jatekoa fast food delakoa izan ohi da, ez zaio garrantzia handirik ematen, snack moduko bazkaria egiten dute eta seiak aldera afari-merienda handia. Martinek eta Kattalinek esaten dute eskolan janari normala jaten duten bakarrak direla, kar kar.

Ez dago ohiturarik eskolatik irten eta parkera joateko, egia da orain hotz handia egiten duela. Batzuetan eskolaz kanpoko jarduerak izaten dituzte, eta bestela liburutegira joan ohi gara edo elurretan jolastera...

Iraila eta urrian eskolatik irten eta lakura joaten ginen, bainurako oso ondo prestatuta dago. Asteburuetan irteera txikiak egiten ditugu: New Yorken izan gara bitan, Bostonera tarteka joaten gara...

Haurrak zer moduz ari dira egokitzen?

Martinek okerrena etorri aurretik pasa zuen. Eta Karen etorri berritan arraro egon zen. Kattalinentzat, berriz, zailena eskolan hasi zenean izan zen.

Martin oso gustura dago, klaseak ingelesez izatea oso estimulagarria egiten zaio. Gainera, eskolan musika, artea, marrazketa... asko lantzen dituzte. Hala ere, bai Martinek eta baita Kattalinek ere, Zestoako eskola gehiago gustatzen zaiela esaten dute.

Kattalini gehiago kostatu zaio egokitzea, dena ingelesez delako, eta gazteleraz ere ia ez dakienez eta idazten eta irakurtzen ere ez, *Google Translate* gisako tresnarik ezin du erabili komunikatzeko. Irakasle eta laguntzaileek oso goxo hartzen dituzte umeak, baina komunikazio aldetik hanka-motz sentitu da Kattalin, bestela ere lotsatia da eta... Dagoeneko lau hilabete daramatzate eskolan eta orain gustura joaten da, ulermena hobetu du eta pixkanaka hasi da ingelesez hizketan.

Orain arte sentsazio oso ona izan dugu atzerritarrekiko duten begirune eta baliabideen gainean. Baina bat-batean

Trump boterera heldu denetik beldur handia daukagu, gauzak aldatu egin dira. Baliabideetatik haratago, paperik gabe muga pasa duten familiak larri daude, ume batzuk eskoletara joateari utzi diote polizia eskolara sartu eta eramango dituzten beldurrez. Eskolatik e-mail asko jaso ditugu immigrazioko poliziak eskolan sartzeko legezko zehaztapenak zein diren azaltzen. Sare sozialetan sarekadak egon daitezkeela zabaltzen da batzuetan... Egun hauetan hezkuntzako murrizketak hasiko direla esan dute eta arduratuta gaude.

Zer gustatzen zaizue gehien zuen bizimodu berrian?
Esperientzia bera ari da izaten ederra, abentura izaten ari da une gogor eta goxoekin, beste mundu baten egokitzen ikastea... Hainbestetan pelikulatan ikusi dugun mundu horretan bizitzea; estatubatuarren kultura ezagutzea... Historia askoko lekua da, ezagutzeko txoko asko ditu. Pixkanaka jendea ezagutzen ari gara eta hemengo bizimodura ohitzen. Iñigo irakasle lanetan oso gustura ari da, teknologia ematen ari da ingelesez eta erronka polita da. Ni pixkanaka ari naiz nire kontsulta martxan jartzen eta horrek ere poza ematen digu. Umeak ere gauza berriak probatzen hasi dira, orain izotzetako patinekin ibiltzen ikasten ari dira, adibidez. Eta familian elkarrekin egoteko denboraz disfrutatzen ari gara.

Eta gutxiena?
Osasungintzaren egoerak harritzen nau: amatasun baimenik ia ez dago, ama askok bi asteko baimena bakarrik izaten dute; oso herrialde aurreratua da alderdi askotan, baina osasun publikorik ez dago, agureak lanean ikusten dira, jendea igeltsuarekin lanean... Salaketa asko egiten den herrialdea omen da, protokolo, lizentzia, eta burokrazia asko eskatzen dute denerako, zuzentasuna gustatzen zaie. Adibide bat jartzearren aurrekoan gurasook zuzendariaren e-mail bat jaso genuen esanez gelan gertakari bat izan zela, baina segurtasun neurri guztiak aplikatu zituztela umeak babesteko: edalontzi bat apurtu zen. Gero Martinek harrituta kontatu zidan gelatik atera zituztela eta beste gela batean sartu bi orduz eta edalontziaren gela prezintatu egin zutela. Martinek, barrez, irakasleak imitatzen zituen "Kontuz! Kontuz!" esanez!

Zer botatzen duzue faltan Zestoatik, Euskal Herritik...?
Jendea, bizitza soziala. Familia eta lagunak (gureak eta umeenak). Eta kaleko giro hori hemen ez da existitzen. Umeek ere lagunak eta herriko eskola faltan botatzen dituzte. Hemen bizitza isolatuagoa da, hala ere, hasi gara lagunak egiten eta, gainera, bisita asko izaten ari gara.
Irailean Oihane, Iñigoren arreba, egon zen hemen eta gero nire gurasoak; orain gurasoak bigarren aldiz etorri dira, konpainia ederra da eta asko laguntzen digute. Laster Iñigoren ama ere etorriko da eta Aste Santuan Zestoako lagunak datoz: poz-pozik gaude!
Gabonetan nire anaia Roman eta Dorleta etorri ziren umeekin eta baita Miren eta Gaizka ere Lilirekin, Ipar Karolinatik. Opor ahaztezinak izan dira!

Zer egin zaizue zailena egokitzeko garaian? Eta zer errazena?
Paper pila bat egin behar izan dugu etorri aurretik, eta bertan zer esanik ez. Kotxea erosi eta gutxira izorratu egin zen, bigarrena erosi behar izan genuen, seguruak, Interneta, telefonoak, bankuak, etxea jantzi... Eta gero umeak eskolan hasteko ere urduritasunak pasa genituen... Bizitza zerotik eraikitzea izan da. Eskerrak elkar hartuta eta sintonia berean gauden! Ezkonduta egotea, adibidez, bisatuak lortzeko baldintza zen eta guk kapitulu honi hasiera emateko baliatu genuen.
Etxea gure erara moldatu eta goxo jartzeak indar asko eman zigun. Etxe ederra eta erosoa dugu, amerikar tipikoa, belardiarekin. Harrigarria da zenbat animalia ibiltzen diren gure etxe bueltan: koioteak, oreinak, azeriak, hontzak, katagorriak ia etxe barruraino sartzen dira...

naiara exposito alberdi

danbolin.eus

Arroabeko auzotarrek San Isidro kaleko zirkulazioa festa eta egun berezietan bakarrik ixtea erabaki dute

Otsailaren 4an Arroabean egin zen San Isidro kaleko zirkulazioa erregulatzeko bigarren bozketa. 198 herritarrek hartu zuten parte eta lehenengo aukera nagusitu zen, 126 boto eskuratuta. Bozketaren emaitzen arabera, piboteak jarriko dira auzoko festa egunetan eta egun berezietan, errepidea itxiz. Gainera, gutxieneko neurriak ezarriko dira eguneroko zirkulazioa antolatzeko: aparkalekuak kenduko dira, zebra bideak luzatuko dira, zabor ontziak lekuz aldatuko dira eta piboteak jartzeko zuloak egingo dira, behar denean errepidea ixteko aukera izateko.

Santa eskean ibili ziren zestoarrak, aizarnarrak eta lasaotarrak

Aizarnan, otsailaren 1ean, herritarrak goizean zehar kantuan ibili ziren, eta hilaren 5ean belaunaldien arteko Santa Eskea ospatu zuten.

Lasaon ere, otsailaren 1ean, baserriz baserri ibili ziren eskean goizean. Ondoren, Lasaoko elkartean bazkaldu, eta arratsaldean jarraitu zuten.

Zestoan, Santa Ageda bezperan, goiz eta arratsaldez kantuan atera ziren. Eguna giro onean borobildu zuten, gosaria, bazkaria eta afaria partekatuz. Bildutako dirua Noelia Fundazioari laguntzeko bideratu zen.

Harriet Ugartek Urrezko Fasea jokatu zuen 16 urtez azpiko Euskal Selekzioarekin

Harriet Ugarte 16 urtez azpiko Euskal Selekzioarekin izan da Espainiako Autonomietako Selekzioen Txapelketako Urrezko Fasean. Txapelketa otsailaren 8ko asteburuan izan zen eta bertan Espainiako selekziorik onenak bildu ziren. Lehenengo partida, Madrilen aurka 0-0 berdindu zuten. Larunbatean, euskal taldeak Balear Uharteei 3-1 irabazi zien. Igandean, Harrietek gola sartu arren, 2-1 galdu zuten Valentziaren aurka eta finalerdietatik kanpo geratu ziren.

[ELKARRIZKETA] Markel Azpeitia arroarrak "Erlojuaren orratzak" film laburrarekin Huhezinemaren MU Saria irabazi du

Urtarrilaren 24tik 26ra bitartean Aretxabaletan Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdiaren 18. edizioa izan zen. Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko 4. mailako ikasleek antolatzen dute Jaialdi hau. Bertako ikasle den 21 urteko Markel Azpeitia arroarrak 3. mailan zegoela egindako "Erlojuaren orratzak" film laburrak MU saria eskuratu du. Azpeitiari egin diogun elkarrizketa osorik irakurtzeko sartu gure webgunean.

Urola Erdiko Gazte Asanbladen Topaketak ospatu dira

Otsailaren 15ean, Zestoa, Azpeitia eta Azkoitiko gazte asanbladek antolatutako topaketak ospatu zituzten. Goizeko 11:00etan, "Faxismoaren aurrean, gazte langileok zer?" hitzaldiarekin hasi zuten eguna. Eguerdian, kiroldegiko aterpean bazkaldu eta ondoren, olinpiadak egin zituzten frontoian: zaku karrera, txapel jaurtiketa, lokots bilketa, zanku lasterketa eta, azkenik, soka-tira. Zestoa izan zen garaile. Arratsaldean, bafle-poteoak kaleak girotu zituen, eta Habemus Papam, Ekintza eta Jipoituak taldeek kontzertuak eskaini zituzten. Ondoren, DJ-ak aritu ziren.

Lizarraitz ondoko irteera erabilgarri dago

Otsailaren 20tik aurrera, Lizarraitz auzunearen atzean dagoen kalea, ibilgailuentzat norabide bakarrekoa izango da. Orain arte sartu eta irteteko erabili den bidegurutzea, auzora sartzeko bakarrik erabili ahal izango da. Gasolindegi ondoan egokitu den irteera erabili beharko da GI-631 errepidera sartzeko eta ondorioz, auzotik irteteko.

Bestalde, otsaila amaierarako irekiko da Enekosauztegi kalea. Kale berrituaren irekierarekin batera, Gesalaga eta Gurutzeaga kaleetatik autoak herrigunetik atera bakarrik egin ahalko dute.

Jokin Artetxek aurkitutako Eskarabilera jaso zuten basauriarrek

Otsailaren 15ean, ehun basauriar inguru bildu ziren Jokin Artetxek Izarraitzen aurkitutako Eskarabilera buruhandia berreskuratzeko, San Fausto jaietako ikur nagusietako bat. Basauriarrek jaietako jantziekin, banderekin, globoekin eta bestelako apaingarriekin girotu zuten herria.

Ekitaldiari hasiera emateko, Aldatxako kideak bi zutabetan kokatu ziren, eta Jokin Artetxe, bere familiarekin lagunduta, erditik igaro zen Eskarabilera itzuli aurretik. Basauriarrek 150 euro eta opari txiki bat eman zizkioten esker onez. Jai giroak aurrera jarraitu zuen, eguraldi eguzkitsua lagun, musika eta jolasen artean.

"Elikatu Itxaropena" karabanak 6 tona material bildu ditu Sahararako

Urtarrila eta otsailean zehar, Zestoa, Azkoitia eta Zumaia artean 6 tona material bildu dira Saharara bidaltzeko.

Bilketak kalean nahiz eskoletan egin dira. Hainbat ikastetxek hartu dute parte egitasmoan; Zestoako hiru eskolak aritu dira bilketan eta horiez gain, Azkoitiko Xabier Munibe eta Floreaga Ikastetxeak, eta Zumaiako Ikastetxeak ere ekimenean parte hartu dute.

268.qxp_55 23/2/25 22:31 Página 14

Nerabeen PARTE-HARTZEA martxan

NERABEZAROA ALDAKETA GARAIA DA, ETA GAZTEAK EUREN NORTASUNA ERAIKITZEN HASTEN DIRA, AISIALDIA ANTOLATZEKO MODUA ERE ALDATUZ. TESTUINGURU HORRETAN, ZESTOAKO UDALAK PROIEKTU BERRITZAILEA JARRI ZUEN MARTXAN PASA DEN IRAILEAN, HELBURU ARGI BATEKIN: 12 ETA 16 URTE BITARTEKO NERABEEK HERRIAN DUTEN PARTE-HARTZEA ETA BERAIEN ARTEKO HARREMANAK SUSTATZEA.

Zestoako nerabeek 12 urterekin bizi duten aldaketa ez da txikia. Lehen Hezkuntza amaitu ostean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Azpeitian edo Zumaiako ikastetxeetan jarraitu behar izaten dute. Eskola eta herria aldatzeak lagunarteko ohiturak eta aisialdiaren antolaketa eraldatzen ditu, eta horrek eragin zuzena du gazteen eguneroko bizitzan. Proiektu honen bidez, aldaketa horiei aurre egiteko tresnak eta espazioak eskaintzen zaizkie, laguntza eta orientazioa emanez.
Proiektuaren helburua nerabeen behar eta nahiak ezagutzea eta haien autonomia sustatzea da, komunitatean rol aktiboa izan dezaten. Era berean, gazteen arteko harremanak sendotu nahi dira, herriaren etorkizuna eraikitzen lagunduko duten eragile aktibo bihurtuz, euren ideiak garatzeko baliabide eta espazio egokiak eskura izan ditzaten.

LEHENENGO FASEA; PROIEKTUAREN AURKEZPENA ETA NERABEEN EKARPENAK

Prozesuak bi fase nagusi ditu; lehen fasea irailetik abendura bitartean burutu zen. Proiektua ikastetxeetan aurkeztu zen, gazte dinamizatzaileei, udal teknikariei eta zinegotziei zein herriko eragileei helaraziz. Urritik aurrera, gazte dinamizatzaileei formakuntza espezifikoa eskaini zitzaien, eta DBHko ikasleekin parte-hartze saioak antolatu ziren Urola, Zumaiena eta Zumaiako herri eskoletan.
Urtarrilaren erdialdean Udalari aurkeztu zitzaion orain arte egindakoa eta lehenengo fasearekin amaitzeko, urtarrilaren 31n lehen bilera egin zen nerabeekin Jubilatuen Tabernan. 60 nerabe inguru bildu ziren, eta bertan Udaleko zinegotziak eta teknikaria, baita prozesuan parte hartu duten herriko hainbat gazte erreferente ere, presente izan ziren. Bilera horretan, nerabeek aurrez egindako zein proposamen garatuko diren azaldu zen eta ekintza horietako batzuk antolatzeko lan-taldeak osatu ziren.

BIGARREN FASEA; PROPOSAMENAK GARATZEA

Prozesua bere bigarren fasean murgilduta dago, eta gazte dinamizatzaileen laguntzarekin, nerabeak euren ekarpenak eta proposamenak garatzen ari dira.

Otsailaren 14an, lehen lan-talde bilerak egin zituzten Gaztelekuan, aurrez proposatutako ekintzei forma ematen eta hauek antolatzen hasteko helburuarekin. Bilera horretan, futbito-txapelketa, pumptrack-a eta dantza-ikastaroa antolatzeko lehen urratsak eman zituzten. Aurrerantzean, beste lan-talde batzuk ere aktibatuko dira, beste ekimen batzuk martxan jartzeko asmoz. Lehen bilera hauetan jasotako ideia eta ekarpenak landuz, ekintzei pixkanaka forma ematen joango dira. Nerabeek izango dute euren ideiak eta ekimenak aurrera eramateko ardura, prozesuaren benetako protagonistak bihurtuz.

Arroabeko nerabeak ere martxan dira. Udazkenean, Zumaiako eskolan egindako bileretan hainbat dinamiken bidez aurkeztutako proposamenak garatzen ari dira.

Otsailaren 17an egindako bileran, nerabeek jada festa batzordean parte hartzen ari direla azaldu zuten, eta aldi berean, Karmenetako futbito-txapelketa antolatzeko lehen urratsak ere eman dituztela adierazi zuten. Aurrerantzean, beraiek proposatutako ekintzei pixkanaka forma ematen jarraituko dute.

UDAL ORDEZKARI ETA TEKNIKARIEN IRITZIAZ GAIN, PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN NERABEEN IRITZIA ERE JAKIN NAHI IZAN DUGU. GAZTELEKURA GERTURATU GARA HORRETARAKO

Bakr Saadi, Abdullah Sajjad, Osama Belameiri, Limam Mahfoud eta Nacer Bady

Kirola egitea gustuko dugu eta horrekin lotutako proposamenak egin ditugu. Uda partean eguraldi ona egiten duenean tira, baina negurako zerbait falta da. Ostiral eta larunbatetan Gaztelekura joaten gara, baina arratsaldez kiroldegira joatea ere gustatzen zaigu. Laranjadin futbolean ibiltzea debekatu zuten, Idiazpiko etxe azpian ere arazoak egon ziren, eta kiroldegian ere ez dago beti aukerarik eta ordutegirik denontzat.

16 urtetik beherakoentzat gimnasioa ere eskatu dugu, eta igerilekua ere proposatu genuen, nahiz eta ezinezkoa dela esan ziguten. Bide gorria ari direla egiten jakin dugu, eta pumptrack-a ere gustuko dugu, baina negurako aterpeak falta dira.

Udalak gure proposamenak jaso eta ahalegina egingo dutela esan digu, eta hori eskertzekoa da, lehen inoiz ez baitziguten iritzia eskatu. Orain, denon artean futbito txapelketa antolatzeko asmoa dugu eta antolakuntzan parte hartuko dugu.

Jone Lizarralde, Aitana Ulazia eta Intza Kortadi

Adin tarte batekoontzat aukera gutxi dago eta Gaztelekua irekita dagoenean egoten garen arren, hortik kanpo ia ezer ez dugu. Horregatik, ideia ona iruditu zaigu Udalaren ekimena.

Urtarrilaren 31ko bileran nerabe asko elkartu ginen, bertaratu zirenen proposamenak entzun eta orain ideia horietako batzuk martxan jarriko ditugu elkarrekin. Agiroko kideekin elkarlanean, gaua pasatzeko plana eta herriko festei begira, balsa jaitsiera eta jaiak antolatzen laguntzeko prest gaude.

Gure ustez, garrantzitsua da herriko ekintzen antolakuntzan parte hartzea eta prozesuak nola funtzionatzen duen ikastea.

Amaiur Arakistain, Haizea Iribar, Ane Zabala, Enaitz Larzabal, Ekhi Uranga, eta Markel San Juan

Lehenik eta behin, eskolan hainbat saio egin genituen, eta han jasotako ideiak urtarrilaren 31n jubilatuen tabernan aurkeztu zizkiguten. Bileran denok parte hartu genuen: lehenengo azalpenak entzun genituen, ondoren gure iritzia eman genuen, eta, azkenik, aurrera eramango diren ekintzak zerrendatu eta horietan parte hartzeko izena eman genuen.

Orain, ekintza horiek garatzeko bilerak egingo dira, eta bertan parte hartuko dugu, denon artean zer antolatu dezakegun erabakitzeko. Gainera, bileraren ostean merendola izan zen, eta gure ustez, horrek ere eragin handia izan zuen jende askok parte hartzeko.

oihane goikoetxea larrañaga

268.qxp_55 23/2/25 22:32 Página 16

Inkesta

Inauterietan mozorrotzeko ohiturarik ba al duzu?



Inauteriak izugarri gustatzen zaizkit. Betidanik, kuadrillakoak asko mozorrotu izan gara, eta mundial pasatzen dut. Garai batean Elizondon abesten eta ateratzen ginen. Gainera, inauterietarako prestaketekin ere asko disfrutatzen dut. Ganbaran dudan mozorroz betetako armairua ireki, jendeari mozorroak utzi eta nik zer jantziko dudan pentsatzea asko gustatzen zait.

ana artola
54 urte

Ez zaizkit inauteriak gehiegi gustatzen, batez ere mozorroaren prestaketa ez dut gogoko. Hala ere, txikitatik mozorrotzen naiz, eta orain ere beti kuadrillan mozorrotzen gara. Kalera irteteko unean lotsa sentitzen dut eta gaizki pasatzen dut hasieran, baina gero ondo.

igone rezabal
47 urte

Ez naiz inauteri-zalea eta mozorrotzea ez zait bereziki gustatzen. Hala ere, ingurukoek hala egiten dutenez eta festaren parte izateko, normalean beti mozorrotzen naiz. Urteetan zehar frailez edo Txanogorritxuz mozorrotu izan naiz.

igor eizagirre
39 urte

Betidanik gustatu izan zaizkit inauteriak. Orain arte bakarka mozorrotu izan naiz, baina orain familia giroan eta taldean mozorrotzen gara. Inauteritako onena hala ere Elegante eguna!

alex altolagirre
37 urte

(Erantzuleak guztira: 147

Kultur etxe aurrean haur asko ibiltzen da eta belar-guneak txakur mokordoz beteta egoten dira.

Arrobeko frontoko zati batean itxitura gardena jarri dute.

PANTAILEN INGURUKO HITZALDI ZIKLOA

Martxoak 31, astelehena

- Gaia: *Pantailek eta adikzioek osasun mentalean duten eragina.*
- Hizlaria: Maitane Ormazabal
- Ordua: 17:30
- Lekua: Alonderon

Apirilak 29, asteartea

- Gaia: *Mugikorrek eta sare sozialek ezkutatzen dutena.*
- Hizlaria: Telmo Lazkano
- Ordua: 17:30
- Lekua: Arroabeko eskolan

Apirilak 8, asteartea

- Gaia: *Nerabezaroan barrena: beldurrak, balioak, autoestimua eta identitate eraikieraren garrantzia.*
- Hizlaria: Maitane Ormazabal
- Ordua: 17:30
- Lekua: Alonderon

Maiatzak 9, ostirala

- Gaia: *Mugikorrekin eta sare sozialekin harreman osasuntsua eraikitzen.*
- Hizlaria: Telmo Lazkano
- Ordua: 17:30
- Lekua: Alonderon

ZESTOAKO UDALA

Paisaia Berreskurapena

KIMUBAT PAISAIA

943 15 00 85
kimubat@kimubat.eus
www.kimubat.eus

BERMEO | Alde zaharra

ORENDAIN | Frontoi zaharra

AZPEITIA | Madalena parkea

Taxi Zestoa

9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B · 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740

MIZU Hortz Klinika

mizuclinicadental@gmail.com
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBALES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBALES COLEG. 868
Telf.: 943 14 78 28

eskua Therapy Group

Fisioterapia
Osteopatia

943 29 08 99
Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Altzaga 6 – Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

Lokatza izan da aurtengo Kobaz Koba Traileko protagonista

Aurreko egunetako euriak tarteko, lokatza izan da otsailaren 9ko Kobaz Koba traileko bederatzigarren edizioko protagonista. Guztira 614 korrikalarik hartu zuten parte. Sailkapeneko denbora guztiak www.kirolprobak.com webgunean daude ikusgai.

Jarraian lasterketa bakoitzeko irabazleak:

Zaldei bidea (26 km)

Gizonezkoak:
1. IRAITZ LEGORBURU / Getaria / 2:14:39
2. PAUL ORMAETXEA / Murueta / 2:16:49
3. BEÑAT IBAÑEZ / Zumarraga / 2:16:58

Lehen zestoarra: AMETS ARAMBERRI / Zestoa / 2:23:25

Emakumezkoak:
1. ENERITZ ARAMENDI / Azpeitia / 2:58:12
2. NAROA URIA / Azpeitia / 3:01:20
3. TANIT PEREZ DE LECETA / Donostia / 3:12:41

Lehen zestoarra: AINTZANE DIAZ / Zestoa / 3:39:24

Artzei bidea (15 km)

Gizonezkoak:
1. MIKEL ARRIOLA / Eibar / 1:17:14
2. JOXE ERRASTI / Orio / 1:17:17
3. IBAI ANGULO / Azpeitia / 1:18:27

Lehen zestoarra: JON AIZPURU / Zestoa / 1:24:32

Emakumezkoak:
1. AINARA URRUTIA / Aretxabaleta / 1:33:05
2. ANE ELZAURDIA / Bera / 1:33:54
3. IRATI LARRAÑAGA / Usurbil / 1:34:26

Lehen zestoarra: AINARA ARAKISTAIN / Zestoa / 1:56:24

AGENDA OTSAILA

27 OSTEGUNA
Ertxiña musika eskolako kaldereroen kalejiran, 17:15ean kultur etxetik abiatuta. Itxaropena dantza taldeko kideek ere parte hartuko dute.
* Sasikoipetsu Aizarnako eskolan. Mozorrotuta kalejira egingo dute. Ondoren, Elkotako zelaira joango dira parrilada egitera.* Hitzaldia "Zahartzeak bakardadea dakar?", Alonderon, 18:00etan, 3Z-k antolatuta.
*"Etiketek ezkutatzen dutena" hitzaldia, Alonderon, 17:00-18:00, Udalak antolatuta. * Nerabeen parte hartze prozesuko bilera, Gaztelekuan. 18:00, nerabeen gurasoentzat eta 19:00, herriko eragileentzat.

28 OSTIRALA
Haurren inauteri festa Zestoan. 18:00ean Ekain Guraso Elkarteak antolatutako mozorro-festa, udaletxeko arkupetan UK03 txarangak alaituta. Guraso elkarteko kideek palomitak banatuko dituzte.* Inauteriak Arroan. Mozorrotzeko gaia: Magia. 15:00 kalejira. 15:30 hainbat ekintza eskolan. Ondoren, askaria. 17:00-18:30 haurrentzako tailerra Txepetxarekin. 18:30 talojana Ederki elkartean.
* 18:30 Magma Mia bakarrizketa saioa Beatriz Egizabalekin, Portalen, Zestoako feministen taldeak eta Portalek antolatuta.

MARTXOA

01 LARUNBATA
Inauteriak. 18:00. Umeen mozorro-desfilea udaletxeko arkupetan, Gaztelekuak antolatuta. 19:00 – 21:00 Ustekabe txaranga kaleetan zehar. 21:00 helduen desfilea, erdikalean, 22:30 00:30 Ustekabe txaranga kaleetan zehar.

08 LARUNBATA
12:00 Zestoako emakume feministen taldeak deituta manifestazioa herriko plazan hasita. Ondoren, tortila pintxoa jateko aukera.
*17:00-19:00 Iraetako tren txikia irekita.
*19:00 Itaiak antolatuta, mobilizazioa

12 ASTEAZKENA
Arteagako festak antolatzeko bigarren hitzordua.

15 LARUNBATA
Agirok deituta, eskolarteko ibilaldi neurtua Oriora.

16 IGANDEA
45. Zestoako Krosa. Iñaki Irureta Memoriala, goizeko 10:00etatik aurrera. Helduen lasterketa 11:30ean. Izen ematea herrikrosa.eus. Prezioa 10 euro (kadeteak doan). Bi distantzia aukeran; 2.770 eta 8.630 metro.

28 OSTIRALA
Odol ateraketak, Alonderon.

31 ASTELEHENA
Pantailen inguruko hitzaldi zikloaren baitan hitzaldia, Alonderon, 17:30ean. "Pantailek eta adikzioek osasun mentalean duten eragina". Hizlaria: Maitane Ormazabal.

OPORRAK BAKEAN programan parte hartzeko familiei deia egiten zaie Wadna taldetik. Haur saharararrek uda basamortutik eta errefuxiatu kanpamentuetatik kanpo pasatzeko aukera eskaintzeaz gain, familia euskaldunek herri saharararra lagundu eta beste kultura batekin elkarbizitzeko aukera izango dute. Harremaneratako oporrakbakean.eus

Gaztelekuko martxoko eskaintza

6: jolas librea, gaztelekuan (3. zikloa).
7: martxoaren 8ko tailerrak plazan (DBH).
8: jolas librea, gaztelekuan (DBH).
11: ihes-gela (1 eta 2. zikloak).
Ordeutegiak: 16:45-17:30, 17:45-18:30, 18:45-19:30. Izena eman behar da.
13: ihes-gela (3. zikloa).
14: ihes-gela (DBH).
14 eta 21: Komiki tailerra 12 eta 16 urte bitartekoentzat.
15: udaleku itxietako izen-emateak (DBH).
20: ihes-gela (3. zikloa).
27: udalekuetako izen-emateak (3. zikloa).

*Udaleku irekiak, kirol udalekuak eta uda gazteko izen-emateak: martxoaren 12tik apirilaren 4ra.

BARBANTXO:
Herrigunean HH: martxoak 12 eta 26 (17:00etan, gaztelekuan).
Herrigunean LH: martxoak 7 eta 21 (17:00etan, gaztelekuan).
Aizarnan: martxoak 7 eta 21 (17:00etan, kultur etxean).
Iraetan: martxoak 14 eta 28 (17:00etan, elkartean).

KONTAIDAZU IPUIN BAT:
Martxoak 4 eta 18, 17:30ean, liburutegian.

EPELIAN:
Martxoak 2, 9, 16, 23 eta 30 kultur etxean.

TXEPETXA:
Martxoak 7 eta 21, Elkargunean.
HH: 17:00 - 18:00
LH: 18:00 - 19:00

FEREGI
BERRIKUNTZAK
ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA
Jagoba Otaegi 695 721 015
Isidro Fernandez 690 108 996
Joan Fernandez 667 537 892

ESKELA DIGITALEN ZERBITZUA doan
DANBOLIN.EUS ATARIAN
Eskela jartzeko zuzeneko bidea:
* Danbolineko telefonora deitu (722 609 265)
* info@danbolin.eus helbidera idatzi

ZESTOAN
uste baino gehiago

Janaridendak

ELORZA janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

mi antxa
943 147 015

Pakoi Okuna
943 148 428

EROSKI city zurekin
943 062 861

UZKUDUN harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110
mairi LOTERIA ESTANKOA

OTXOLO
Tel. 943 147 133

Zbitt
Tlf: 943 148 010

Etxerako osagarriak

ONNA
943 147 081-647 683 643

UGARTE burdindegia s.l.
943 147 154

Arropa eta oinetakoak

IRAOLA ZAPATEGIA
617 269 408

lili
943 148 061

Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322

KERALA ongizate txokoa
679 885 173

ESTILISTAK
680 802 777

ZESTOA ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

ZESTOAKO UDALA